

**Padertza**

Ik. Eremitismoa.

**Paganismoa**

Sin.: Jentiltasuna

Pagus (=baserria) latinezkotik dator; hirigunetik edo kalerritik kanpo edo landan sakabanaturik bizi zen jende-multzoa adierazten zuen hitz horrek erromatarren artean. Kristautasuna aurrenik hirigunetan finkatu eta horietatik "baserrietara" zabaldu zelako, paganoak deitzen zituzten artean kristautu gabe zeuden landako biztanleak edo "baserritarrak". Hortik, esanahi erabat erlijiozkoa hartu zuen hitzak, esanahi soziala edo demografikoa galduz.

Gero zabaldu egin da kontzeptua, eta bereziki zera adierazten du: lekuan lekuko erlijiozko sineste-multzo eta erlijiojera. Kristauen ikuspegitik, berriz, kristautasunarekin lotura historikorik ez duen edozein erlijio handiren (\*budismoaren, \*hinduismoaren, \*konfuzianismoaren, etab.en) jarraitzaileak izendatzeko ere erabiltzen da pagano hitza: ez, ordea, juduak edota musulmanak izendatzeko.

"Egiazko" eta "gezurrezko erlijioa" kontzeptuaren gain eraikita dago paganismoaren ikuskera; horien arteko bereizkuntza arauemailea ematen du azpian; kristau-"erlijiozentrismoa" erakusten du hitz horrek.

Juduak ere bazuten hitz bat, Moiseren erlijioak ez ziren guztiak izendatzeko: Jainkoaren Herriaren aurrez aurre zeuden goim edo jentilak (latinez: gentes), hain zuzen. Izatez, erlijio eskusibista guztiak egiten dute horrelako banantzea: \*fededunak, batetik, eta bestelako erlijio guztietakoak batera, bestetik.

Esangura gaitzespenezkoa duenez, egokiago da ez-kristaua erabiltzea, paganoa erabili beharrean, kontzeptua beronen neutraltasunean adierazi nahi denean.

Gaur egun, paganoa deitura erabiltzen dute, herri kristauean aurreko erlijiokeretatik gelditu diren edota birbizten diren elementuak adierazteko.

Kristautasunarentzat bere misio-ekintzarekin lotuta doa paganismoaren kontzeptua: paganoak bait dira Jainkoaren goi-agerkunde historikoa hartu ez dutenak; horiengana zuzendu izan dute bereziki beren misio-ekintza kristau-elizek. Judaismoa-kristautasuna/paganismoa eskema hautsita gelditu zen \*islamisismoaren agertzearekin; izan ere, paganismoaren kontzeptua "politeismoarekin" lotuta joan da, bestalde; islamismoak, berriz, \*monoteismo hertsia aitortzen du.

Gaur egun, beste aldetatik gelditu da hautsirik eskema hura, baita misio-ekintzaren ikuskera. Vatikanoko II. Kontziliotik atera den eskemaren arabera, esate baterako, Eliza Katolikoaren "besteekiko" harremana zirkulu kontzentrikotan eratzen da: beste kristau-Elizak eta Eliz elkarteak //Ez-kristau erlijiodunak// Erlijiozgabeak. Hiru zirkulu horiekiko harremanak bideratzeko beste hainbat idazkaritza sortu ditu Vatikanok, Herrien \*ebanjelizaziorako Kongregazioaz gain: Kristauen batasunerako Idazkaritza, Ez-kristautentzako Idazkaritza, Ez-fededunentzako Idazkaritza.

Bestalde, "kristau-Herrietako" sekularpen-prozesuak eta dekrizantzeak, batetik, eta mendealdeko "kristau-Herrien" eta beste Herrien arteko kultur, ekonomi eta politikazko harreman berriek, osorik aldatu ditu kristautasunaren misio-ekintzaren eremua eta horretarako baldintzak.

Ik. Erlijioa eta erlijioak; Kristautasuna; Misioak; Erlijiozentrismoa.

Paulo Agirrebaltzategi

**Paganoak**

Ik. Jentilak, 2.

**Pagoda**

Budismoko \*tenplu edo \*santutegia; Asiatik Herri ezberdinetan izen ezberdinak hartzen ditu. Horietan ez dira beti erlikiak gordetzen. Txinan ta deitzen dituzte jauretxe-erakin horiek. Tankera oso berezia eta finkoa hartu zuten, aski ezaguna gertatzen zaiguna.

Ik. Budismoa.

**Panagia**

Greziarrek Ama Birjina deitzeko erabiltzen duten izena da; guztiz santua esan nahi du. Hori irudikatzen duen domina handiak edo medailoiak ere izen berbera du.

Ik. Maria, Ama Birjina; Hiperdulia.

**Pandit**

Jakintsua esan nahi du sanskritoz. Gehienbat brahmaneei ematen dieten titulu ohorezkoa da: hau da, erlijiozko tradizioa irakasteko gauza direnei.

Ik. Maisua.

**Panegirikoa**

Norbait goraiatzeko jendaurrean egiten den gorespen-hitzaldia. Prediku-mota da kristauen artean, \*santuren baten jaian egi-